

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ELTZIEGOKO UDALA

#### **Jendaurrean jartzea urez hornitzeko, zaborrak biltzeko eta estolderia zerbitzuen tasak eta uraren kanonak, bai eta horiek ordaindu behar dituztenen erroldak ere**

Behin onarturik urez hornitzeko, zaborrak biltzeko eta estolderiaren tasen eta uraren kanonaren zerga erroldak, 2019ko bigarren seihilekoari dagozkionak, jendaurrean jartzen dira erakusgai orain, interesdunek aztertu eta egoki deritzeten oharrak edo alegazioak egin ahal izan ditzaten 15 egun balioduneko epean, ediktu hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera kontatzen hasita.

Alegaziorik aurkezten ez bada, errolda behin betiko onetsizat joko da, eta kobratzeko aldia hasiko da.

#### I. Ordaintzeko epea:

A) Borondatezko epea: 2020ko martxoaren 11tik maiatzaren 11ra.

B) Betearazte aldia: 2020ko maiatzaren 12tik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekarguak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, Arabako zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

#### II. Ordaintzeko lekua eta modua:

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute beste ezer egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa bankuan helbideratuta ez daukatenek udalean eskatu ahal izango dute.

#### III. Gomendioak:

Banku helbideratzeetako altak edo aldaketak eta hurrengo jakinarazpenetarako helbide aldaketak Eltziegoko Udalean izapidetu behar dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Eltziego, 2020ko urtarrilaren 31

*Alkatea*

*LUIS ALDAZABAL RUIZ DE VIÑASPRE*